

## IDAZLANA

***“Sartu egin ziren jendez gainezka zeunden pasilloetatik barrena...”***

Sartu egin ziren jendez gainezka zeuden pasilloetatik barrena, denak leku berberera joateko asmoz; areto nagusira. Egun hori ez zen beste egun normal bat bezalakoa, ez horixe. Egun hartan, institutuko 50. urteurreneko ospakizuna zen eta horrexegatik, literatur lehiaketako irabazleek beraien testuak irakurri behar zituzten. Gainera, Martak, batxilergoko 2.1eko delegatuak, saririk irabazi ez arren, ikasle guztien izenean testu txiki bat prestatu behar zuen eta, irabazleei sariak eman baino lehen, irakurri behar izango zuen institutu guztiaren eta makina bat jenderen aurrean. Zeure burua jende askoren aurrean aurkezteko ez baduzu arazorik, ondo, baina hau ez zen kasua; Martak gorriak ikusi zituen testua irakurtzeko ordua heldu zenean.

Urduritasuna aparte, eta euskara bere lehenengo hizkuntza izan ez arren, Martak ez zekien zertaz hitz egin bere idazlanean. -Zer espero dute nik esatea?- pentsatzen zuen. Urteurrenerako aste bat geratzen zen eta, honezkerok, ez zen idazten hasi, ikasleak aspertzeko eta barregarri geratzeko beldurra handiegia baitzen. Lagunei eta irakasleei galdetzen hasi zitzairen, baina esaten ziotena ez zitzaion erabilgarria iruditzen.

Hiru egun falta zirenean, amore eman zuen. Bere ohean etzan zen eta mirariren bat aurkezteko momentuaren zain egon zen. Bat- batean, bere ama sartu zen bere logelan eta bere alaba horrela ikusi ondoren, zer gertatzen zitzaion galdetu zion. Martak bere amari arazoa kontatu ostean, honek, jakina, irtenbidearekin egin zuen topo. Martari esan zion “zergatik idazten zuten gazteek” gaiaren inguruan landu zezakeela idazlana. -Hau bai ideia ona!- Pentsatu zuen Martak eta zuzenean lanean hasi zen.

-Zergatik idazten dute gazteek? Hori bai galdera interesgarria- hasi zen Marta pentsatzen- beharbada saria lortzeko asmoarekin parte hartzen ari dira edo agian irakasleren batek etxerako lan bezala agindu dielako.- Azkenean, konturatu zen gazteek idazten omen zutela beren burua jendearen aurrean aurkezteko, beraien pentsaerak adierazteko eta munduari zerbait esateko: gazteok hemen gaude eta prest gaude mundua aldatzeko, bai horixe!